

HIZKUNTZA HAZKUNDEA INTERNETEN*

Vicent Partal

Kazetaria, Vilaweb webgunearen sortzaile eta zuzendaria

Helbide elektronikoa: director@vilaweb.cat

* Artikulu honetan II. Euskal Soziolinguistika Jardunaldian Vicent Partalek emaniko hitzaldiaren mamia jaso da. Jardunaldia Soziolinguistika Klusterrak antolatuta 2009ko otsailaren 20an burutu zen Miramon Zientziaren Kutxagunean, Donostian.

Atzerritar bat ekartzeak beti esan nahi du normaltasuna pikutara doala. Eta ni Indio laguna izan arren, ulertzekoa da horrek dakarren normaltasunaren haustura.

Hona etortzera gonbidatu nindutenean ideia zen azaltzea zer-nolako eragina izan duen Internetek katalanaren normalizazio-prozesuan. Baina ez alderdi praktikoari edo teknikoari begiratuta, baizik eta hizkuntzak mundu global batean ikusiz, eta katalanok prozesu hasi berri horretan ikasi duguna adieraziz.

Hizkuntza globala zeri esaten zaion azaltzen saiatuko naiz. Ikusiko duzuen bezala, nire tesiaren arabera, katalana hizkuntza globala da. Eta, ondoren, horraino nola heldu garen azalduko dut, betiere zuen herrialdeko hizkuntza eta zuen prozesuak errespetatuz. Ez ahal duzue behintzat nire solasaldi hau intrusiotzat hartuko; guk egin duguna azaltzea da nire nahia, eta hori euskararentzat ere mesedegarria izatea.

HIZKUNTZA GLOBALA

Gaur egun hizkuntza globalaren kontzeptua eztabaidatuagoa dela lehen baino uste dut, zailagoa baita zertaz ari garen zehaztea. Historikoki, baina,

bere garaian hizkuntza inperiala zenari esaten zitzaion hizkuntza globala. Modu itsusiagoan deitzen zitzairen; hizkuntza haiek mundu osoan zeuden zabaldurik, eta jendeak pentsatzen zuen —edo, inkontzienteki, sinesten zuen— lehen mailakoak zirela, onak eta indartsuak. Eta, haien ondotik, etxe-zuloko hizkuntzak zeuden. Inperio handiek Europako hizkuntzak zabaldu zituzten munduan zehar, eta historikoki globalizat hartu dira.

Beren garaian globalak izandako hizkuntzak ere hil ziren, esate baterako latina, segur aski lehenbiziko hizkuntza globala, kontuan hartuz bere unibertso kulturala eta markatzen zuen erritmoa. Berrikiago, baina, frantsesa eta ingelesa hartu ziren hizkuntza globalizat bereziki, eta elkarren lehian jardun zuten globaltasunaren hizkuntza izateko. Beste hizkuntza batzuek mailaz igo nahi izan zuten, batzuetan oso argiak ez ziren metodoak erabiliz. Errusierak, adibidez, hizkuntza globala izan nahi zuen, baina ez zen batere globala, aginduz ezarritakoa baizik. Edo gaztelania, hizkuntza global gisa aurkezten hasi baitzen, baina datu garrantzitsu bat ahaztuta. Gaztelania, dakigun bezala, Europako pertsona gutxi batzuek hitz egiten duten hizkuntza amerikar bat da; baina hortik aurrera ez dago besterik. Frantsesa eta ingelesa bai, hizkuntza globalak dira: kontinente guztietan hitz egiten dira, kontinente guztietako jende desberdinak erabiltzen ditu espresatzeko, nahiz eta, nire us-tez, frantsesaren kasua desberdina den, ez baitago garai bateko lekuan.

Beraz, eztabaida aldatu egin da. Lehen frantsesa, portugesa eta espainiera goian zeuden, errusiera erdian edo, eta gu behean. Baina orain aldatu egin da egoera. Ingelesa goian dago, eta denon hizkuntza da. Hizkuntza globala baino gehiago elkartruke orokorreko hizkuntza da, eta eztabaida berri bat dago orain, alegia zein diren hizkuntza globalak eta zein ez.

GLOBALIZAZIOAN PARTE HARTZEA

Gaur egun hizkuntza-ekosistema berri bat dugu eta hizkuntza bat globala izatea edo ez izatea ez dago hiztun-kopuruaren baitan ez eta gobernuen eragin politikoaren baitan ere, baizik eta hiztunek globalizazioaren parte izateko duten borondatean: ingelesa -hizkuntza komun gisa- eta garai globalean tresna erabilgarri izan nahi duten hizkuntzak daude.

Horixe da aldatu dena: lehen globalizazioa objektu politiko bat zen eta estatuen esku zegoen, inperioen esku, baina orain bizitzen ari garen globalizazioak denoi eragiten digu, eta geuk erabakitzen dugu parte hartu ala ez.

Ez badugu parte hartzen, bazterrean geratzen gara. Ez dut horrelakorik gomendatzen. Parte hartzen badugu, hizkuntza globala izatea edo ez izatea ez du erabakitzen tamainak, edo familia handi batekoa izateak edo familia oso isolatu batekoa izateak.

Globalizazioan, azkenerako denok daramagu bizi-erritmo bera, denok liburu bera irakurri eta musika bera entzuten dugu. Lehen txikia zena, orain merkatu handi bat da. Hizkuntza bat denona dela onartu denez, hor-tik eleaniztasunera salto egiten da.

Eta hizkuntza bat globala izatea edo ez izatea ez dago hiztun-kopuruaren baitan ez eta gobernuen eragin politikoaren baitan ere, baizik eta hiztunek globalizazioaren parte izateko duten borondatean.

*Eleaniztasunak bidea
ematen digu gure
hizkuntza hizkuntza
kolektibotzat hartzeko,
eleaniztasuna
errespetatuz harekin elkar
ulertzeko, geurea den
bakarra delako eta
bereizten gaituelako.*

Adibidez: *Apple* bezalako konpainia bat oso garrantzitsua da musika-
ren, zinemaren eta abarren munduagatik, baina oraindik hamalau hizkun-
tzen muga dago. *Google*, berriz, 42 hizkuntzatan dago, eta konpainia ba-
tzuk urrutiago ere heldu dira. *Google* eleaniztasunaren adibide on bat da
eta, beraz, alde horretatik gauzak errazten ditu.

Oraindik itzultzaileen prozesuaren hasieran gaude, baina itzulpen
automatikoak datorren hamarkadan gelditu ezinezko prozesua izango da.
Inoiz iritsiko ez zela uste genuen ingurune batera iritsiko gara. Nik gazte-
laniaz hitz egin eta zuek euskaraz entzungo duzue, traste eta gauza xe-
lberrik gabe eta goi mailako teknologiarekin. Hasiera-hasieran gaude, baina
azken bizpahiru urteotan gauza harrigarriak ari gara ikusten, eta hor bai
dela garrantzitsua mundu globalarekin jokatzeko.

HIZKUNTZEN ELKARLOTURA

Google translate, adibidez, itzuli baino gehiago, elkarrekin lotzen ditu 41
hizkuntza. *Google translate* barruan egoteak edo ez egoteak hizkuntza glo-
bala izatea edo ez izatea esan nahi du. Horrelako tresnekin zaila dirudi gi-
zarte mistoak, mestizoak —nahi bezala deitu—, eleanitzak sortzera goazela
zalantzan jartzea, edo, alderantziz, gaur egun zailagoa dirudi edozein gi-
zarte elebarkar defenditzea.

Urtetan aurrera goazenok, geure kasuan, frankismoa amaitu zenean
Herrialde Katalan elebarkarrekin egiten genuen amets. Gaur ez dut amets hori
egiten. Nik behintzat ulertu dut hobe dela zenbait hizkuntza edukitzea. Adi-
bidez, Bartzelonan jada 240 hizkuntzatan hitz egiten da geografikoki lokali-
zatuta. Hau da, nik lan egiten dudan lekuan hizkuntza bat entzuten dut egu-
nean zehar, baina bi kale zeharkatu eta zonalde arabiarrean nago eta arabiera
bakarrik entzuten dut. 240 hizkuntza egotea erabateko aldaketa da, eta hasi
dira politika espezifikoak aplikatzen. Esate baterako, Bartzelonako metroan,
ibili berri zaretenok denetik entzungo zenuten, adibidez iragarki guztiak
zazpi edo zortzi hizkuntzatan, besteak beste arabiera, kurdua, etab. Zerbitzu
publikoak hainbat hizkuntzatan ematen dira, eta udalerrri katalan batzuek,
adibidez, amazigta hizkuntza ofizial izendatu dute beren lurraldeetan.

ELEANIZTASUNA ETA HIZKUNTZA GLOBALA

Beraz, dinamika hori txarra ez, baizik ona da, eta hizkera soziolinguistiko-
aren beste maila bat zabaltzen digu. Guretzako arriskua da elebarkartasuna
nekez lortuko dugula, eta eurek errazago lortuko dutela. Eleaniztasunak
bidea ematen digu gure hizkuntza hizkuntza kolektibotzat hartzeko, ele-
aniztasuna errespetatuz harekin elkar ulertzeko, geurea den bakarra delako
eta bereizten gaituelako. Horrek denak, nire ustez, soziolinguistikaren al-
detik unibertso berri bat sortzen du, eta funtsezko aldaketa bat dago ber-
tan. Nirea hizkuntza globala da, ez da ingelesa, ez espainiera, ez italiera,

baina nirea ere globala da hala izateko borondatea dagoelako, eta hizkuntza globalen talde horretan sartzea lortu da, globalizazioaren aurrean isolaturik gelditu nahi ez duten hizkuntzen artean, beste edozein baino gutxiago izan nahi ez dutenen artean. Beraz, aintzat hartuak izan daitezen sortzen eta lan egiten dute, eta horrek aldaketa handiak dakartza.

HIZKUNTZA INDUSTRIA GISA. TAMAINAK EZ DU GARRANTZIRIK

Adibidez, nik beti azaltzen dut une honetan 14 pertsona daudela lanean katalanez Santa Cruzen, Kalifornian, Googlen egoitza globalean. Google osoa katalanez mantentzearen ardura dute. Alegia, 14 lagun daudela bertan lanean katalanez. Programak itzultzeko industria, adibidez, inoiz ikusi gabeko mailatar ari da igotzen eta, beraz, hizkuntzaren industria ari da sortzen; hizkuntza ez da soilik ondare pertsonala eta kolektiboa, emozioa eta norberaren adierazkortasunaren erabilera, baizik eta industria ere bai. Horretarako, tamaina ez da oztopo.

Dagoen hizkuntzarik globalenetako bat estoniera da —demografiaz euskararen oso antzekoa—, herrialde hartan baliabide asko daudelako informatika-mailan. Adibidez, *Skipe* —zuetako askok erabiliko duzue hitz egiteko—, estoniarra da, eta bere inguruan sortzen den komunitate guztiak norberaren hizkuntzaren alde egiten bukatzen du. Tamaina ez da problema, hizkuntzaren zailtasuna ez da problema; berdin da bat izan edo bestea izan: gizartearen borondatea da problema.

Dualtasunaren hizkuntzak izango dira mundu global batean lan egiten duten hizkuntzak, eta horrek industria esan nahi du, hedabideak esan nahi du, goi mailako kultura esan nahi du, unibertsitateak esan nahi du. Hori dena eduki behar dugu, gehi demografia minimo bat, jakina, eta modu irekian parte hartzeko borondatea, hizkuntza gaur egun etxean bakarrik ez dela normalizatzen eta munduan normalizatu behar dela ulertzeko borondatea. Ez bada munduan normalizatzen, etxean ez egotea bezala da.

Europarrok alde horretatik abantaila dugu: industria-produktu gordin bat dugu, Internetera konektatzeko gaitasuna, eta hedabide-maila oso aurreratua. Horrek dakar, gaur gaurkoz, demografikoki txikiak diren Europako hainbat hizkuntza izatez globalagoak izatea Afrikako edo Asiako hizkuntza handiak baino.

KATALANAREN HAZKUNDEA INTERNETEN

Unibertsitateen papera

Behin hona helduta, katalana dagoen lekura nola heldu den azaltzen saiatuko naiz. Esan dezagun laurogeita hamarreko urteen hasieran, batzuek intuizio bat izan genuela.

Nirea hizkuntza globala da, ez da ingelesa, ez espainiera, ez italiera, baina nirea ere globala da hala izateko borondatea dagoelako.

***Hizkuntza ez da soilik
ondare pertsonala eta
kolektiboa, emozioa eta
norberaren
adierazkortasunaren
erabilera, baizik eta
industria ere bai.
Horretarako, tamaina ez
da oztopo.***

Azaldu nahi dizuedanak zenbait etapa ditu. Lehenbizikoa, unibertsitateen papera izan da. Aipatzeko bakarrik, ez dakit guk zortea izan genuen edo ez, baina egia da 90eko hamarkadan hau dena hasterakoan guretzat ezinbestekoa izan zela unibertsitateen lankidetzak: Castellóko Jaume I, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa eta Balear Uharteetako unibertsitatea.

Geure kasuan, Castellóko Unibertsitatea kasu berezia da. Artean 100 web orri ez zeudenean —beraz, historiaurrean—, haietako bat Jaume I.a Unibertsitatekoa zen. Web hura katalanez eta ingelesez zegoen. Beraz, katalana lehenbiziko 100 orrien artean egon zela esan dezakegu. Inork ez daki zenbatgarrena izan zen, 100 zeudenean zenbatu baitzituzten; ez dakigu 70.a edo 90.a izan zen. Unibertsitate horren lana eredugarria izan zen, eta beti eutsi die ideia eta proiektu horiei.

Balear Uharteetako unibertsitateetan errektore bat izan genuen, Nadal Batle izenekoa, zoritxarrez hilda dagoena, ameslari handia. Teknologiarik gabe kultura katalanik ez zela izango zioen, eta ezinezkoa zela kultura katalanari eustea ez bazen teknologian integratzen.

Kataluniako Unibertsitate Politeknikora joaten ginen denok mesede bat eskatzera, eta berebiziko lana egin zuten. Egunkarien artean, Avui izan zen sarean jarritako lehenbiziko egunkaria, osorik, eta politeknikoari esker izan zen, dohainik. Bai egunkari hori, bai txori-bilatzaileen azkeneko elkarteak, bai mendien berdetasuna... den-dena zegoen webean euren zerbitzarian lekua egiten baitziguten.

Hiru unibertsitate horien konbinazioak markatu egin gintuen, eta izugarri lagundu zigun hasieran; unibertsitateak bat egin zuen, ez zion teknologiaren eremuari bakarrik heldu, gizartearen motorra izaten jakin zuen, bere baitan ez ixten jakin zuen, eta herri-proiektuak abiarazi zituzten.

Lankidetzak Interneten

Orain oso erraza da esatea. Katalana teknologiaren eremuan sartzea arrakasta da, baina zer gertatuko zen ez zegoen batere seguru. Tokian tokiko ekimena oso garrantzitsua izan zen eta barruraino erroto zen. Nazio mailako antolaketak oso ondo daude, baina auzo eta herri bakoitzean ez bazegoen barruan sartzen eta biltzen zintuen zerbait, hau dena hodei bat izango zen eta ez zuen funtzionatuko. Eta komunitateak zeresan handia izan zuen. Interneten munduan ia ez dago batere borrokarik. Geure aldetik errespetatu eta aitortu egiten dugu beste norbait zerbait interesgarria egiten ari denean, bera ari denean pentsatzen, eta agian ados ere jarriko gara.

Gero telefoniaren eta *puntu com*-en zoramena etorri zen, eta, agian, haiek dena kolokan jarri zuteneko momentu aizan zen espekualazioarengatik eta irrazionaltasunarengatik. Eskerrak *puntu com*-ek porrot egin zuten. Ahoberokeria bat izan zen, baina une haietan indar handia izan zuten. Zorionez kale egin zuten, katalanaren kontra baitzeuden. Bartzelonan asko ezagutu genuen *puntu com*-en tesi hau: Amerika inbaditu behar da.

Oso inperialista zen: argentinar batek ez dauka zerikusirik chicano batekin, baina haiek, hizkuntza bera zelakoan, merkatu bat osatzeko nahikoa zela uste zuten. Baina ez zen hala gertatu. Euren tesia zen katalana hizkuntza lokala zela eta globala gaztelania. Zorionez Amerikan ez zuten ezer lortu. Ez dago web katalan bakar bat ere negozio serio bat denik Amerikan.

Gaztelaniaren aldeko indar horren ideia bat izan dezazuen: Kataluniako Generalitateak dirua inbertitu zuen lehenbiziko weba *Olé* izan zen, hain zuzen ere katalana debekatzeko proiektu bakarrean. Hau da, *Yahoo* zer bait sar zenezakeen katalanez, baina *Olén* Porrot hura oso garrantzitsua izan zen: dena pikutara joan zen, eta, jakina, bazirudien haiek ez zirela gaiztoak eta beste guztiok ginela gaiztoak. Garai hori batzuetan neketsua izan zen, baina asko lagundu zigun, denbora izan genuelako funtsezko lan bat egiteko, eta pixkanaka-pixkanaka egin zen.

HIZKUNTZAREN IDENTIFIKAZIOA ETA IKUSGARRITASUNA

Algoritmoaren bila

Honako lana hizkuntza identifikatzea izan zen. Hasteko, inork ez zekien zertaz ari ginen hizketan. Guk hizketan jardun bai, baina inork ez zekien zertaz ari ginen. Ez zegoen modurik mundu globalak gu ikusteko, eta funtsezkoa zen —eta funtsezkoa da—, mundu globalak gu ikustea, ikusten ez bagaituzte ez baikara existitzen.

Garrantzi handiko bi kanpaina egon ziren orduan. Bat oso xumea izan zen, denbora askoan funtzionatu duen logo bat sortzea, eta Kalananez indexatu gaitzatela. Barne-kode ikusezin bat zen, weg guneeetan katalan *metaname*-a ezartzen zuena. Era horretan, robotek edo bilatzaileek —edo jakin-mina zuenak— gure web bat aurkitzen zutenean, katalanez zegoela ikus zezaketen.

Hori oso garrantzitsua da, ikusgarritasuna ematen baitizu. Gero, Lluís de Yzaguirre-k algoritmo bat aurkitu zuen eta egoera asko hobetu zen. Algoritmo matematiko horren bitartez katalana identifikatzen da ()+es+(dels quan què). Zuek edozein ordenagailuri formula matematiko hori eman eta esaiozue: “-Jarri Obama” goiko lehen parentesi horretan eta bilatu. Eta agertzen diren orri guztiak katalanez daude. Hau da, katalanez hitz egiteko modua bilatzen zuen.

Ondoren, formula hobetuz, Googlek erabili du zerbitzu osoa katalanez emateko. Yzaguirre-k ez zuen noiz dirurik jaso horregatik eta ziur asko funtsezko unea izan zen katalanak Interneten izan duen garapenerako. Formula hori lortzea, opari ematea eta teknologikoki erabiltzea funtsezkoa izan zen. Horri esker hasi ahal izan genuen katalana hizkuntza globala izateko mugimendua. Eta lehenbiziko kasu garrantzitsua *Netscape* izan zen. Orain inor ez da oroitzen, baina lehenbiziko nabigatzaile garrantzitsua izan

Hiru unibertsitate horien konbinazioak markatu egin gintuen, eta izugarri lagundu zigun hasieran; unibertsitateak bat egin zuen, ez zion teknologiaren eremuari bakarrik heldu, gizartearen motorra izaten jakin zuen, bere baitan ez ixten jakin zuen, eta herri-proiektuak abiarazi zituzten.

Nazio mailako antolaketak oso ondo daude, baina auzo eta herri bakoitzean ez bazegoen barruan sartzen eta biltzen zintuen zer bait, hau dena hodei bat izango zen eta ez zuen funtzionatuko.

Ez zegoen modurik mundu globalak gu ikusteko, eta funtsezkoa zen –eta funtsezkoa da–, mundu globalak gu ikustea, ikusten ez bagaituzte ez baikara existitzen.

Formula hori lortzea, opari ematea eta teknologikoki erabiltzea funtsezkoa izan zen. Horri esker hasi ahal izan genuen katalana hizkuntza globala izateko mugimendua.

zen, eta hizkuntza desberdinetara itzulitako nabigatzaile bat irekitzea erabaki zuen. Katalanera izan zen itzuli zen lehenbizikoetako hizkuntza, eta Softcatalá elkarteak egin zuen. Zuen herrialde honetan ere bada antzeko elkarte bat, eta horrelakoak ezinbestekoak dira denetariko programak katalanera itzultzeko.

Netscape konturatu zen katalanera itzulita egonda aldea ateratzen ziola *Internet Explorer*ri. Oso dibertigarria izan zen espainieraz bakarrik zegoen *Internet Explorer*rek *Netscaperekin* mundu mailako konparaketa bat argitaratu zuenean. Eta harriduraz konturatu ziren Espainian *Netscaperen* erabiltzaile-portzentaia handiagoa zela beste herrialdeetan baino. Gero oharatu ziren ezezela Espainiako kontua baizik eta katalanera itzultzearen arrakasak estatu osoko merkatu-datuak handitzen zuela. Hori funtsezkoa da, geroztik zera entzuten baitugu: “A! Beraz, hizkuntza hau erabiltzeak mesede egiten digu. Hizkuntza hori lokalizatzeko eta erabiltzeko mesede egiten dit. Ez da kontu altruista, baina kultura pixka bat ere bada.”

Ba, hortik aurrera, dena hasi zen. Enpresa handiak naturaltasun osoz hasi ziren katalana erabiltzen. *Googlerena* sekulako aldaketa izan da. Gaur egun, *Googlek* daukan guztia —e-mailak, mapak, nahi duzuen—, dena katalanez dago, inongo arazorik gabe. Eta horrek lehiakideengan eragina du. Gaurtik aurrera *hotmaila* katalanez jar daiteke, kasualitatea da baina gaurtik aurrera da. *Microsoftek* *microsoft.cat* atera berri du, eta hark *msn.cat* iragarri berri du. Hau da, batzuek besteak erakartzen dituzte, eta sistema berri horretan mundu guztia hasten da esaten: “Hor bada zer edo zer”. Estatistikak azaltzen hasten dira. Batzuek 18. lekuan jartzen gaituzte, eta besteek 27. ean. Baina hor zaude agerian jarri zarelako, gerta baitzitekeen gu hor egotea eta inork ez ikustea. Identifikazio-kanpainak egin ez bagenu, hizkuntza gisa identifikatzen gaituen algoritmoa sortu ez balitz, 2,4 milioi pertsona nabigatzen ariko ginen eta jendeak ez zuen jakingo existitzen garenik. Existitzen zarela dakitenean eta beren eskemetan sartzen zaituztenean, egoera aldatzen hasten da.

Geure domeinua

Eta are gehiago aldatu da geure domeinua dugunetik. Atzo, adibidez, *Googlen* sartu eta *cat* domeinua zenbat orrik duten galdetuz gero 8.300.000 orri zeuden. Zenbaki horiei ez zaie ezikusia egiten. Norbaitek ingelesetik hizkuntza aniztasunera jauzia egin nahi duenean zerrendan zaude, zeure mailan, baina hor zaude.

Geure herrialdetik kanpora, gero eta enpresa eta erakunde gehiago hasi ziren beren orriak katalanez erabiltzen. Niri kasu dibertigarri bat gertatu zitzaidan.

Norbaitek Hanburgoko web izugarria katalanez ere bazegoela aurkitu zuenean, lehenbizi Hanburgoko webaren logika ezagutu nahi izan genuen. Azalpen bat aurkitzen saiatu ginen, azalpen soziolinguistikoa, lehen

esaten zen bezala. Azkenean arduraduna aurkitu eta esan genion: “Zergatik jarri duzue Hanburgoko weba katalanez?” Eta gizona pentsatzen jarri eta esan zuen: “Katalanez al dago?” “Oso-osorik, eta gainera astero gaurkotzen dute”. “A! Nik ez dakit. Nik berrogei garrantzitsuenetan jartzeko esan nuen”. Hor dago gakoa. “Nik berrogei garrantzitsuenetan jartzeko esan nuen, eta ez nintzen kezkatu zein ziren”. Eta langilea, berrogei garrantzitsuenak jarri behar zituen, *Googler*a joan, 40 jarri, eta katalana 37. zegoenez sartu egin ginen, eta 41.a, ez dakit zein zen, kanpoan geratu zen.

Aipamen horiek garrantzitsuak dira: mundu globalean ez daukazu gauza batzuk azaltzen ibili beharrik. Ez duzu azaldu beharrik ez daukazula estaturik, hiru autonomia-erkidegotan zatitutako gizagaixo bat zarela, estatu burujabe bat, urrutiko uharte bat eta iparraldean koitadu batzuk, inork kasurik egiten ez diena. Ez duzu horrelakorik azaldu beharrik. Berdin zaie. Haiei jende gehien duten 40ak esan, eta bost axola zaie zure egoera soziolinguistikoa, zure arazo politikoa edo buruko gaitza: barrura zoaz eta kito.

Hor lotura bat dago, baina. Horrekin bakarrik, hau da, etxean ez bada ezer gertatzen, azkenean antzeman egiten da. Izan ere, Interneten ezin duzu ziria sartu. Interneten igarri egiten da zer den egia eta zer ez. Beraz, tokian tokiko hainbeste proiektu egin ez balira, katalanezko hainbeste ekimen, jendea ohartu ez balitz hizkuntza bizirik dagoela sarean —gaur egun jende guztiak esaten du biziago dagoela sarean kalean baino—, bestea ez zen gertatuko, edo ez luke batere zentzurik izango.

Eta ondorenean une erabakigarria heldu zen: *puntu cat* lortzea. *Puntu cat* bost erori bururatu zitzaigun erokeria izan zen. Egun batean esan genuen: “Eta pasaportearen ordezkari hitzegia hartzen badugu?” Oso esaldi ona zen. “Buruarekin pareta joka aritu ordezkari digute estatua independenteak garenean—, bitartean zergatik ez dugu ordezkari bidea bilatzen?” Eta esan genuen: “Zergatik ez dugu domeinu kultural bat eskatzen?” Domeinuak ematen dituen ICANN erakundeak eskua zabaldu zuen unea zen. Possible zen lortzea, eta lan polita egin zen domeinu hori lortzeko. Bai lortu ere. Lehenbizikoak izan ginen domeinu kultural bat lortzen, herrialdeko 98 erakunderekin babesarekin, eta inpresioa eragin zuten 68.000 sinadura egiaztaturekin.

Anekdotak asko daude horren inguruan. Zuei soziolinguistika gustatzen zaizuen, soziolinguistikari buruzko bat kontatuko dizuet. Gure garraipenik handiena ez zen izan *puntu cat* lortzea bakarrik, baizik eta katalanez hitz egiten duten katuak daudela aitortzea merkataritza-kontratu batean. Estatubatuarrek oso bereziak dira. Hizkuntzaren aldetik ez baizik buruaren aldetik ezagutu behar dituzu. Abokatu batek egun batean aurkitu zuen ziberokupazioa izeneko amarru bat zegoela Interneten. Adibidez, telebista guztiek daukaten *puntu tv* domeinua, berez, Tuvaluko siglak dira. Ito eta desagertzeko zorian dauden horietako batzuk dira. Tobagon ia ezer ez dagoenez, telebistei Tuvaluko domeinua saltzen hasi ziren, eta hori negozio handia da estatuarentzat.

Identifikazio-kanpainak egin ez bagenitu, hizkuntza gisa identifikatzen gaituen algoritmoa sortu ez balitz, 2,4 milioi pertsona nabigatzen ariko ginen eta jendeak ez zuen jakingo existitzen garenik. Existitzen zarela dakitenean eta beren eskemetan sartzen zaituztenean, egoera aldatzen hasten da.

Mundu globalean ez daukazu gauza batzuk azaltzen ibili beharrik. Ez duzu azaldu beharrik ez daukazula estaturik, hiru autonomia-erkidegotan zatitutako gizagaixo bat zarela, estatu burujabe bat, urrutiko uharte bat eta iparraldean koitadu batzuk, inork kasurik egiten ez diena. Ez duzu horrelakorik azaldu beharrik. Berdin zaie. Haiei jende gehien duten 40ak esan, eta bost axola zaie zure egoera soziolinguistikoa, zure arazo politikoa edo buruko gaitza: barrura zoaz eta kito.

Ziberokupazioarekin oso arduratuta daudela esan nahi dut. Abokatu azkar batek esan zidan: “Orain ulertzen dut katalanarena. Hori dena gezurra da; zuek katuentzako domeinu bat egin nahi duzue, katuen jabeek beren katuen webak eduki ahal izateko (cat)”. Baldintza bat jarri ziguten, *puntu cat* orrietan ezin zela katuen argazkirik egon, ziberokupaziorik ez gertatzeko. Baina hori problema bat zen, katalanez hitz egiten zuten katuen eskubideak urratzen baitziren. Eta arrazoi honekin jo genuen kontraerasoa: “Eta katuak katalanez hitz egiten badu?”. Eta abokatuak, estatubatuarra zenez, logikoa zen bezala gu haizea hartzera bidali beharrean, zera esan zigun: “Nola froga dezakezue?” Eta orduan oso arrazoi xumea eman genion: “Nik katalanez hitz egin eta erantzuten badit, gutxienez ulertu egiten du katalana”.

Beraz, *puntu cat* dominioa katalanez dauden gune guztiek izan dezakete eta baita kultura katalanari erreferentzia egiten diotenen ere. Adibidez, Joan Miróren alemaniazko guneak *puntu cat* izateko eskubidea du.

.cat domeinua eta katalana

Nire ustez, gauza garrantzitsuak lortu dira. Horretaz ez dago eztabaidarik: web pila bat daude, denetarioak, ideologiatik eta politikatik aparte ere, *cat* domeinua normaltasunez erabiltzen dutenak, lurralde osoan. Ni *nafarra* naiz, Valentziakoa naiz, nire zonaldeko edozein udaletzek *puntu cat* jartzen du eta akabo eztabaida. Baina, batez ere, oso eztabaida interesgarria ari da gertatzen: Danone eta Microsoft bezalako enpresa handiek merkatuaren logikaz domeinu guztiak erosten dituzte, eta *puntu catera* iristen direnean katalanez zerbait jarri beharra daukate, gutxi bada ere. Nazioarteko enpresa handi guztiak atariko orriak katalanez jartzen ari dira, eta hori oso garrantzitsua da.

Atzo lehenbiziko hiru hilabeteetako zenbakiak ikusi nituen: papelean behintzat 35.000 domeinutan gaude, eta denetik dago bertan.

Eta amaitzeko, *Google translate*, nire ustez jauzi garrantzitsua baita hizkuntza globala bihurtzeko prozesuan. Googlekoek sortu dute *Google translate*, beti bezala inork ez daki nola, atzetik sekulako konputazio-ahalmenarekin. Harremanean jartzen ditu 41 hizkuntza-pare. Hau da, nik estonieraz dagoen web orri bat hartu eta katalanez irakur dezaket, edo antzeko gauzak. Adibidez, arabierara itzulitako orri bat aurki dezakezu (irakurri duten arabiarrek ulertzen omen dute). Ezin zaio eskatu oso purista izaterik baina, egia esan, ulertzen da.

Hari honetatik... duela egun batzuk, hizkuntzei buruzko txosten interesgarri bat egin zuen *Googlek*, hiru hizkuntza aipatzen baitzituen: ingelesa, katalana eta estoniera. Lehen adierazi dut euskararen oso antzekoa dela estoniera. Txostenean diotenez, aplikatzen dituzten hizkuntza-politikak konputazio-kontuak dira. Honela diote: “Guk ingelesez dagoena egun batean ulertzen duguna, urtebete behar dugu katalanez ulertzeko.” Zera

esan nahi du: *bcn* ikusten dudanean —arraroak dira, gero, katalan hauek—, *Bartzelona* esan nahi duela. Eta esaten dute: “Egun bat behar izan dugu ingelesa ulertzeko, gure makinek urtebete behar izan dute katalana ikasteko, eta bi eta erdi estoniera ulertzeko”, baina haiek berdin dela ulertuko dute; bost edo hogeit hamar urte beharko dituzte pigmeoen hizkuntza ulertzeko, baina konputazio- eta denbora-problema besterik ez da.

Eta hori oso garrantzitsua da. Merezi du *Google Translateren* azken asmakizuna ikustea. *Google Translaterekin* honelako gauzak gerta daitezke: Etxe Zuriko *YouTuberen* kanal ofiziala. Obama presidentea hizketan hasten da, azpitu-luekin. Eta zuk esaten diozu: “Aizu, Obamak dioen hori, esadazu katalanez, zuzenean, denbora errealean”. Orduan, Obama presidentea, bat-batean, katalanez hasten da eta kito. Amaitu da problema.

Hau da, azpitu-luekin dituen *YouTubeko* edozein bideo zuk nahi duzun hizkuntzara aldatzen du, 41 horien artean baldin badago, eta horietako bat da katalana. Edo arabiera. Pixka bat harrigarriagoa den adibide bat jarri nahi izan dut. Hizkuntza guztiak estatu-hizkuntzak dira, katalana izan ezik, eta lehengo astetik aurrera galegoa. Eurek diotenez, bi laguntza izan dituzte sartzeko. Batetik katalana eta, bestetik, jakina, portugesa.

AMAITZEKO

41 hizkuntza global horietan funtzionatzen du horrek. Nire ustez, aldatu egin da globalaren kontzeptua. Gaur egungo hizkuntza globalak dira globalizazioan parte hartu nahi dutenak, globalizazioan parte hartzeko behar diren tresna teknologikoez hornitzeko gai direnak, eta beren burua kanpoan ezagutarazteko gai direnak. Hizkuntza ezin da normalizatu herrialdean bertan bakarrik. Kanpoan ere normalizatu behar da hizkuntza.

Laburtuz, zer ikasi dugun esango dizuet. Oso gauza garrantzitsu bat: hizkuntza eta berrikuntza bateratzea. Hori beti ona da, hizkuntza eta arkaikotasuna bereiztea —arkaikotasunarekiko errespetuz—, berrikuntza-tresna bihurtzea, une global honetan tresna berri bihurtzea, nonahi lehiatzeko gai den hizkuntza bihurtzea. Hori beti da ona. Kaleko jendea, elkarteak, unibertsitateak gai dira, gai gara tankera horretako politikan arrakasta izateko, baita gobernuak kontra edukita ere.

Egia da gure gobernuak aldatuz joan direla. Hasieran baino jarrera askoz hobea dute katalanarekiko, baina hasieran gogor egin zuen kontra, katalana maila globalean ez lehiatzeko. Beraz, gobernuen babesik gabe irabaz dezakegu. Eta aizue: ongi dago noizean behin irabaztea. Baina aldatu egin behar da kontzeptua, aldatu burua, eta norberaren hizkuntza hizkuntza globalizat hartu. Hizkuntza gutxitua garelako pentsatzen jarraitzen badugu, etxean erabiltzeko hizkuntza garelako, geure buruari boterea kentzen ari gara, indarra kentzen ari gara mundu globalean. 500.000 izanda ere berdina da. Hitzik ere ulertzen ez badizute, berdina da; hori jada ez da problema. Beste hau da problema: “Erabiltzaileak dauzkate, hitz egiten duen jendea

Google translate, nire ustez jauzi garrantzitsua baita hizkuntza globala bihurtzeko prozesuan. Harremanean jartzen ditu 41 hizkuntza-pare. Hau da, nik estonieraz dagoen web orri bat hartu eta katalanez irakur dezaket.

Gaur egungo hizkuntza globalak dira globalizazioan parte hartu nahi dutenak, globalizazioan pate hartzeko behar diren tresna teknologikoez hornitzeko gai direnak, eta beren burua kanpoan ezagutarazteko gai direnak. Hizkuntza ezin da normalizatu herrialdean bertan bakarrik. Kanpoan ere normalizatu behar da hizkuntza.

daukat, bizirik mantentzen duen jendea, kultura daukat, teknologia, eta globalizazioan egoteko borondatea. Hori dena baldin badaukatu, kito." Bi urte eta erdi edo bost urte beharko dituzue. Edo hamar edo behar hainbat. Baina kito. Ez egotea da problema. Hor bai dagoela problema. Prozesu honetan bazterrean geratzea da problema. Beraz, gaintitu egin behar da oztopo hori. Gaur egun munduan erabiltzeko gai den hizkuntza bat edukitzen jarraitu nahi badugu, aurrera egin behar dugu. Bestela, gureak egin du.

Eta bada azken elementu garrantzitsu bat. Norberaren hizkuntza identifikatu ahal izateko elementu horiek eduki behar dira. Lan egin behar da. Norbaitek egin behar du algoritmoa, norbaitek borrokatu behar du norberaren domeinuaren alde, norbaitek arduratu behar du. Eta gure kasuan bada elementu nabarmen bat: kanpoko aitortpenak autoestimua indartzen du.

Eskerrik asko.■